

Julio Iglesias aske



Bahiketa denbora «hilkutxa» baten moduko zuloan eman du Iglesiasek

Bahitutako ingeniariak apenas izan duen kanpoko berririk 117 egunetan


Julio Iglesiasek ia lau hilabete eman ditu «hilkutxa» baten moduko zulo batean. Bahitzaileekin harreman gutxi izan du eta batere ez kanpoko munduarekin. Bere egoeraz jabetuta, bahituak bizimodu diziplinatua ezarri zion bere buruari.

DONOSTIA

Julio Iglesias uztailaren 5ean, bere seme zaharrenaren urtebetetze egunean, bahitu zuten. Egun hartan ohi baino goizago iritsi zen bere etxera, Amara auzoan, eta garajera sartzean bi lagunek inguratu eta beren autora sartzerara behartu zuten. Berehala ziztatu egin zuten, lo hartzeko.

Esnatu zenerako «hilkutxan» zegoen, horrela deitzen baitzion Iglesiasek 117 egunetz bere bizitoki izan den zuloari, eta bereak ez ziren jantziak zeuzkan soinean. Zuloak 1,80 metroko altuera eta antzeko zabalera (1,80 batera, 1,60 bestera) zituen. «Zutik jarrita, sabaia jotzen nuen ilearekin, utzi zidaten ile honekin», adierazi zuen Iglesiasek prentsaurrekoan, bahitzaileek moztutako ilea eskuarekin ukitzen zuela.

Zuloan lau poster zeuden, tartean ETArena. Bere egoeraz jabetuta, Iglesiasek diziplina jakin bat ezarri zion bere buruari, argi zeukalako «zulo hartatik sartu nintzen bezala eta hobeto irten behar nuela, hori zela nire erronka». Horrela, bahitzaileek utzi-



Bere senideak lagundurik iritsi zen Julio Iglesias prentsaurrekoa eman zuen Donostiako hotelera. EDURNE KOCH

tako liburuekin eta gutunak idazten pasatzen zituen egunak. «Gogor jo nion informatikari eta ingelesa hobetzeko ere aprobetxatu nuen», atzo esan zuenez. Gutunak familiari eta Ikusi enpresako lankideei zuzenduak zeuden, baina bahitzaileen eskuetan geratu dira.

Argi artifiziala zuenez, irakurketa denborak neurtzen zituen, bista zaintzeko. «Hasieran, hoge orrialdero atsedean hartzen nuen, gero hamabostero». Ez zeukan erlojurik, «biologikoa ezik», eta buruz zeraman igarotzen ziren egunen kontua.

Horrez gain, lekuaren mugak

gaindituz aktibitate fisikoari eusten ahalegindu zen: «Egunero egiten nituen ariketak, baina, zuloa hain txikia izanik, arazo handiak nituen traspirazioarekin, hezetan handia baitzegoen». Horregatik, jantzi lehorrekin eta dutxa batekin amets egiten omen zuen zuloan.

Esan bezala, bahitzaileek zenbait liburu eman zizkieten. Egunkariak, berriz, zentsuratuak ematen zizkieten, beraiek aukeratutako albisteak —lantz eta Kalparsororen heriotzak, ETA-ren atentatuak— bakarrik. Musika entzutea ere bazuen.

Hilabeteotan bahitzaileekiko

«erabateko dependentsia» izan duela nabarmendu zuen Iglesiasek. Janari hiru txandatan ematen zioten: gosaria, bazkaria eta afaria. Txandako gizezko bat agertzen zen, aurpegia estalita zuela. Janariari dagokionez, ingeniari donostiarrak ez zeukan kexarik. «Ez zegoen gaizki. Potajeak eta horrelako gauzak bazkaltzeko eta afariak arinak, yogurrak eta antzekoak». 117 urte hauetan kilo t'erdi galdu du, baina sasoi onean dago.

Bahitzaileekin zerbait hitz egiten zuen, baina ez gehiegi. «Ez zeuden eztabidak, inposizioak baizik».

Hiru orduz azalpenak egin zituen Iglesiasek komisaldegian

DONOSTIA

Julio Iglesiasek Poliziaren Donostiako komisaldegian agertu behar izan zuen atzo, Carlos Bueren Entzutegi Nazionalako epailearen aginduz, bere bahiketari buruzko azalpenak egiteko. Ingeniaria Angel Iglesias bere osabarekin eta Antonio Elosegik familiaren bozeramailearekin azaldu zen komisaldegian.

Epailearen aurrean agertu aurretik eritetxean izan zen Iglesias. Etxera iritsi bezain laster, ostiral gauean, Ikusi enpresako medikuak beste azterketa bat egin zion eta, horren arabera, Iglesiasek osasuna ona da.

EMAZTEAREN «EGUN ZORIONTSUENA» Bere senarra ikusi ga-

be 117 egun egon eta gero, Marisa Lizeagak ia ezin zuen sinetsi libre utzi zutela. «Nekez azal dezaket hitzez sentitzen dudana», esan zuen atzo eguerdian, ileapaindegira joateko etxetik irten zuenean. Azken hilabeteak berarentzat oso gogorrak izan badira ere, herenegun bere bizitzako «egun zoriontsuena» izan zela adierazi zuen Lizeagak.

Iglesiasek bere emaztearen jarrera goraipatu zuen arratsaldeko prentsaurrean. «Banekeen emakume gogorra dela eta ez zuela aise etsiko», adierazi zuen, «nik idazten nitzion gutunetan amarena eta aitarena egin beharko zuela esaten nion eta hori da egin duena, espero nuen moduan». Emazteak ez zituen gutun horiek jaso, jakina, bahitzaileek hartzen baitzituzten.

Erreskateaz azalpenik ez

DONOSTIA

Julio Iglesiasek ez zuen ordaindutako erreskateari buruzko argibiderik eman nahi izan. «Jokoz kanpo nago, ez dut horretan pentsatzeko astirik izan», izan zen bere erantzuna. Erreskatearen ordainketak ondorioz bat izan dezakeen galdetu ziotenean, berriz, «denborak esango du», erantzun zuen.

Iturri polizialek Vasco Press agentziari jakitera eman diotenez, bestalde, Julio Iglesias askatzeko 250 milioi pezeta ordaindu behar izan ditu bere familiak. Beste iturri batzuek diotenaren arabera, berriz, 300 milioi pezeta

ordaindu dituzte Iglesiastarrek. Dena den, bahitzaile eta familiaren artean hitzartutako erreskatea orotara 500 milioi pezetakoa dela aipatzen da eta oraingoz erdia besterik ez dutela ordaindu.

Bi zatitan ordaindu du familiak erreskatea, iturri polizialen arabera. Bata abuztuaren bukarrean, eta bestea irailaren 10ean. Komunikabide batzuen arabera, erreskatearen lehen zatia Hego Amerikako herrialderen batean egin bazen ere, polizi iturrien esanetan, Estatu frantziarra izan da negoziaketak egin eta erreskatea ordaindu den lurraldea.

Abuztuaren erdialdean adostu zuten bi aldeek erreskatearen

zenbatekoari buruz, beti ere polizi iturrien arabera. Irailaren 10ean bigarren zatia ordaindu eta ingeniaria berehala askatuko zutela adostu bazuten ere, atzeratu egin zen bahiketaren amaiera. Egoera hori zela eta, urriaren hasieran familia ETArekin kontaktuan jarri zen. «Arazo teknikoak» zirela bide, atzeratu egin zen ingeniariaren askapena, ETak jakitera eman zionez.

Goardia Zibilak egindako ikerketen emaitzak ez dira Corcuera nahi bezain onak izan, atzo ministroak aitortu zuenez. Bahitzaileentzat momentu «egokia» zenean askatu dutela Iglesias esan zuen Corcuera.



Antonio Elosegik agertu zen kazetarien aurrera.

E. KOCH